

**HIRI HONDAKIN SOLIDOEN
BILKETA ETA TRATAMENDUARI BURUZKO
UDAL ORDENANTZA**

AURKIBIDEA

SARRERA

I. IDAZPURUA XEDAPEN OROKORRAK

II. IDAZPURUA BILKETA-ERBITZUAK

I. ATALBURUA ETXEKO BILKETA

. I. SEKZIOA ZABOR EDUKIONTZIEZ

. II. SEKZIOA ERABILTZAIILEEN ESKUBIDE ETA BETE-BEHARRAK

. III. SEKZIOAHAINBAT JARDUERATARAKO BERARIZ-KO ARAUAK

II. ATALBURUA BILKETA BEREZIAK

. I. SEKZIOA OBRA XEHEETATIK DATOZEN OBRA HONDAKINEN BANDEJEN BIDEZKO BILKETA

. II. SEKZIOA ALTZARI, ETXEKO TRESNA ETA GAUZA ZAHARREN BILKETAZ

. III. SEKZIOAHAUTAZKO BILKETAZ

III. IDAZPURUA ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

XEDAPEN DEROGATZAILEA

AZKEN XEDAPENA

SARRERA

Ordenantza honek, gauzatzen den Jarduerak planteatzen dituen arazoei konponbide juridikoa eman nahi die, Hiri Hondakin Solidoen zirkulu osoan diren fase guztietan, hondakinak sortzen direnetik, aprobetxatu edo azkenik desegin arte.

Gure gizarteak gaitasun haundia duenez kontsumitzeko, arazo haundiak ezezik berriak ere sortu zaizkio horrekin, eta horien artean, arduratsuenetakoa da hiriguneetan gero eta hondakin gehiago izatearen ondorioz sortu dena.

Udal eskumenen inguruan, Hiri Hondakin Solidoei buruzko guztia arautzen du Ordenantza honek, zerbitzuaren erabiltzaileek hondakinak hustutzeari buruzko ikuspegitik nahiz Zerbitzu Publiko hau Kudeatu eta Emateari buruzko ikuspegitik.

Guzti hori, herriaren txukuntasun- eta apainketa-egoera egokiak, ingurugiroaren babesa eta hondakinen berreskuratze egokia lortzeko.

Halaber, Jardueraren Sektoreetarako, berarizko araudi bat arautu da, horien hondakinek sortzen duten arazoa konpontzeko. Pentsaturik dago, batetik, edukiontzien bolumenaren arrazoizko aprobetxamendua lortzeko eta, bestetik, bide publikoaren beharrezko estetika- eta osasun-baldintzak zaintzeko.

Azkenik, erabiltzaileentzako informazio-eredu izan nahi du Ordenantza honek, eta herritarren laguntza jaso nahi du, zerbitzu publiko horiek hobeto emateko.

I. IDAZPURUA XEDAPEN OROKORRAK

1. Atala Helburua

Udal eskumenaren esparruaren barruan, Ordenantza honek Jarduera hauek arautzea du helburu:

- Hiri Hondakin Solidoen Bilketa eta Tratamendua.

Halaber, Zerbitzu horien Kudeaketa bere gain hartzen duen Erakundearen eta zerbitzuen erabiltzaileen arteko harremanak arautzen ditu, alde bakoitzaren eskubide, betebeharrak eta obligazioak zehaztuz.

2. Atala Aplikazio-eremua

Ordenantza honen aplikazio eremua Mendaroko Udalerria izango da

3. Atala

Deba Beheko Mankomunitatea da gaurko egunean Hiri Hondakin Solidoen Bilketa eta Tratamendu Zerbitzuaren Kudeaketa bere gain duen Herri Erakundea, Udalbatzaren Akordioaren arabera eta dituen Estatutuen indarrez.

4. Atala Erabiltzailea

Aipatutako zerbitzuak emateko, hauek dira erabiltzaile izaera dutenak: zerbitzu horien ondorioz onuradun edo afektaturik gertatzen diren eta Deba Beheko Mankominatea osatzen duten udalerrietan bizi diren pertsona fisiko eta juridiko guztiak.

5. Atala Aplikatu ahal den araudia

Hiri Hondakin Solidoen Bilketa eta Tratamenduari buruzko azaroaren 19ko 42/1975 Legearen eta ekainaren 13ko 1163/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren printzipioen arabera eta aplikatu ahal diren gainerako xedapenen arabera arautzen da Ordenantza hau.

6. Atala Hondakinaren Kudeaketa, Tratamendua, Desegitea eta Aprobetxamendua definitzea

Araudi horien arabera, honela definitzen dira:

Hondakina. Edozein substantzia, jabeak esku artetik kendu nahi duenean edo horiek uzteko obligazioa duenean, indarrean dauden xedapenen indarrez.

Hondakinen kudeaketa. Horiei destinurik egokiena emateko eta, dituzten ezaugarriak direla medio, giza osasuna, natur baliabideak eta Ingurugiroa babesteko bideratzen diren jarduerak.

Hauek barne hartzen ditu:

- A.- Bilketa, biltegitratzea, garraioa, trata-mendua eta desegitea.
- B.- Berriro erabili, berreskuratu edo birziklatzeko behar diren eraldaketa operazioak.

Tratamendua. Hondakinak desegiteko eta horietan dauden baliabideak aprobetxatzeko bideratzen diren operazioak, beti ere, pertsoneri, gauzei edo giroari arriskurik ez sortzeko moduko baldintzetan.

Desegitea. Ondorengo hauetara zuzenduta dauden prozedura guztiak: hondakinen biltegitratzera edo isurketa kontrolatura, eta guztiz edo hein batean haiek desegitera, erraustuz edo energia berreskuratzea ez dakarren beste sistema batez.

Aprobetxamendua. Prozesu industrial oro, hondakinetan agertzen diren baliabideak berreskuratu edo aldatzea dutenean helburu.

II. IDAZPURUA BILKETA-ZERBITZUAK

I. ATALBURUA ETXeko HONDAKINEN BILKETA

7. Atala Edukiontzien bidez biltzen diren etxeko hondakinak

Ordenantza honen ondorioetarako, Hondakin hauek izango dira etxeko zabor-bilketarakoak:

- A.- Elikadura eta etxeko kontsumoko detritu eta hondarrak, kristal- eta baxera-hondakinak, ontziak, enbalajeak, kartoiak, jantzi- eta oinetako-hondarrak eta, oro har, normalean etxe batean sortu eta zehaztutako egun, ordu eta lekuan, plastikozko edo bestelako poltsetan bilketarako aurkeztutako hondakin guztiak. Poltsok behar bezala egokiturik eta itxita egon beharko dira, apurketa, euri, jareginda dauden animalia eta abarren ondorioz hondakina eror ez dadin.
- B.- A atalean deskribatutakoen antzeko izaera dutenak, baina merkataritza, industria eta zerbitzuetako jardueretan sortutakoak eta aurreko atalean adierazitako eran aurkeztu eta egokiturik.
- C.- A atalekoak, jantoki, eskola, kuartel, ospital, kulturako eraikin, eraikin publiko, jolas-eraikin e.a.etatik datozenen, aurreko atalean adierazitako eran aurkeztu eta egokiturik.
- D.- Merkatu, azoka, festa publikoko leku e.a. garbitzetik sortutako hondar eta produktuak, A puntuan adierazitako moduan aurkeztu eta egokiturik.

E.- Bide-garbiketatik datozen hondakinak.

8. Atala

Ondorengo hauek etxeko zabor-bilketatik kanpo daude, eta beraz, ez dira derrigorrez jasotzekoak:

- Hondeaketako produktuak, hareak, lurrak, hauts industrialak eta obra publiko nahiz pribatukoa den edozien obra-hondakin.
- Edozein motatako neumatikoak, kubiartak, prozesu industrialetako hondar plastikoak, bernizak, pinturak, kolak, likido korrosiboak, koipeak eta olioak.
- Bidoiak, lata handiak, zumitzak eta txirbilak.
- Erabiltzen ez diren elementuak, hala nola, bizikletak, haurren kotxe eta aulkiak, camping-erako aulkiak, horiek dituzten armazoiak, automobilen osagaiak, erradiadoreak, butano-bonbonak, e.a.
- Erabiltzen ez diren eraikuntza eta saneamenduko aparatu eta elementuak.
- Hildako animaliak eta klinika eta ospitaletako hondar anatomikoak eta infekziozkoak.
- Atal honetan berariz zehazten ez diren beste hondakin batzuk, dituzten ezaugarri bereziengatik, Hondakinen Bilketa Zerbitzuak jaso ezin izateagatik, Deba Beheko Mankomunitateak eta erakunde hori osatzen duten Udaletako zerbitzu teknikoek erabakiko dituztenak.

9. Atala **Derrigorrezko zerbitzua**

Deba Beheko Mankomunitatea beharturik dago etxeko zabor-bilketaz arduratzera. Halaber, udalerrriak derrigorrez jaso beharrekotzat jotzen diren materialak kentzeaz ere arduratuko da. 7. Atalean adierazten direnak dira material horiek.

10. Atala **Prestazioak**

Zerbitzuaren prestazioak operazio hauek barne hartzen ditu:

- Hondakinak edukiontzietatik eraman eta bilketarako ibilgailuetan hustutzea.
- Behin hustu eta gero, edukiontziak hasierako lekuetara itzultzea.
- Operazio horien ondorioz bide publikoan erori diren hondakinak kentzea.
- Hondakinak Transferentzia Estazioetara garraiatu eta deskargatzea geroago trata daitezten.
- Bere jabetzako edukiontziak aldiro-aldi garbitzea.

11. Atala **Hondakinen jabetza**

Hiri-hondakin solidoak sortzen edo edukitzen dituztenek, Ordenantza honetan zehazten diren baldintzetan jarri beharko dituzte, Entitate Kudeatzailearen esku, hau da, Deba Beheko Mankomunitatearen esku. Erakunde hori izango da entregatu eta biltzen diren une beretik guzti horien jabea.

Pertsona horiek salbuetsirik geratuko dira zabor edo hondakin horiek sor ditzaketen kalteen ondoriozko erantzukizunetatik, beti ere entrega horretan Ordenantza hau eta legezko gainerako arauak jarraitu badira.

12. Atala **Zerbitzua ematea**

Etxeko zabor-bilketaren modalitate guztiak Deba Beheko Mankomunitateak ezarriko ditu, Udalerri bakoitzarentzat komenigarrien eta egokien irizitako maiztasunez, horiekin kontsulta egin eta gero.

13. Atala **Programazioa**

Bilketa-zerbitzuen, egun, ordu eta baliabideen programazioa kaleratuko dute urtero Deba Beheko Mankomunitatearen zerbitzuek, Udalerri bakoitzari dagokion egutegia adieraziz; Zerbitzuaren beharren arabera, eta herriarentzat interesgarri izanez gero, komenigarritzat jotzen diren aldaketak sartu ahal izango dira. Zerbitzua emateko ordutegi, modu eta maiztasunean egiten diren aldaketak aldeztatik kaleratuko dira, larrialdietan, ustekabeko edo ezinbesteko kasuetan Lehendakariak emandako

xedapenak izan ezik.

14. Atala **Larrialdiko kasuak**

Larrialdiren bat gertatzeagatik zerbitzua ezin eman daitekeen kasuetan, hala nola, gatazka sozial, uholde eta ezinbesteko beste egoera batzuetan, udalak jakinarazi eta gero, auzotarrek hondakinak eramateari utziko diote eta ez dituzte eramango zerbitzua normalizatu arte, edo Mankomunitateak dagozkion argipideak eman arte.

I. SEKZIOA **ZABOR-EDUKIONTZIEI BURUZ**

15. Atala **HHSen edukiontziak**

Udal bakoitzari kontsulta egin eta gero, Deba Beheko Mankomunitatearen zerbitzuek ezarriko dute zein edukiontzi-mota jarri, zenbat erabili behar den inguru bakoitzean eta non kokatu.

Jabetza publikoko edukiontziak direnez gero, hondatu ahala berrituko dituzte Deba Beheko Mankomunitatearen zerbitzuek. Udallerriari horien ordainketa ezarri ahal izango zaio, behar den moduan ez erabiltzeagatik, zerbitzua emateko ezertarako ere ez direla geratu direnean.

16. Atala **Ibiak eta Erreserba bereziak**

Zamalanak egiteko eta edukiontzia behar bezala kontserbatzeko behar diren gainerako operazioetarako, ibiak eta hiri-espazioaren erreserba bereziak ezartzeko eskatu ahal izango du Deba Beheko Mankomunitateak.

17. Atala **Garbiketa**

Mankomunitatearen zerbitzuek aldiro-aldiro garbituko dituzte bere edukiontzia.

18. Atala **Zaborretarako edukiontzia**

Bilketa Mankomunitateak hornitutako ontzi hermetikoen bidez (edukiontzia) egiten denez, higie- eta segurtasun-baldintza egokietan kontserbatu eta mantentzeko obligazioa dute ontzi horien erabiltzaileek, eta beren erru, zabarkeria edo zuhurgabeziatik edukiontzien jasan dezaketen kaltearen arduradunak izango dira.

II. SEKZIOA ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

19. Atala Erabiltzaileen eskubide, betebeharrak eta erantzukizunak

Etxebizitza, merkatal establezimendu, biltegi, azoka, ikuskizunetarako lokal, ikastetxe, industria, osasun-establezimendu e.a.en jabeek edo erabiltzaileek, Zabor-Bilketa Zerbitzuan eta parekagarrietan harpidedun egiteko obligazioa dute, eta zerbitzua erabiltzeko eskubidea ere bai.

Enpresa handiak, udalerrak, salbuetsi egin ditzake hondakin parekagarrien bilketatik, hondakinen osakinek edo kopuruak bilketa ohi ez bezala oztopatzen dutenean eta enpresa bere etxeko hondakinak eta hondakin parekagarriak Transferentzia Plantara edo horiek tratatzeko instalaziora eramateko moduan dagoenean. Leku horietan derrigorrezkoa izango da hondakinok jasotzea.

20. Atala Erabilera-arauak

- 1.- Zerbitzuaren erabiltzaileak beharturik daude etxeko hondakinak, 6 motako 200 galgaz, UNE 53-147-85 Araua betetzen duten plastikozko poltsetan uztera. Geroago, horretarako Mankomunitateak jarri dituen edukiontzi normalizatueta utziko dira poltsa horiek.

2.- Beraz:

- Hermetikoki itxita egon behar dute poltsek, isurketarik gerta ez dadin. Zaborrak txarto aurkeztearen ondorioz, isurketaren bat gertatuko balitz, sortu duen erabiltzailea izango litzateke zikinkeria horren arduraduna.
- Ezin dira hondakin likidoak edo likidotu daitezkeenak dituzten zaborrak utzi.
- Ez da ematen baimenik zaborrak soltean, kuboetan, paketeetan, kutxa eta antzekoetan uzteko.
- Ezin dira zaborrak bertan behera utzi. Ordutegien arabera eta aipatutako leku eta moduan uzteko obligazioa dute erabiltzaileek.
- Ezin da bide publikoan zaborrik manipulatu.
- Debekaturik dago edukiontziak ezarri zaien lekutik mugitzea, lekuz aldatzeko, baita balaztak askatzea edo egoera arriskugarriak sor ditzakeen bestelako edozein manipulazio egitea ere.
- Edukiontziaren funtzio edo estetika hondatzen duen edozer dago debekaturik.

III. SEKZIOA HAINBAT JARDUERATARAKO BERARIZKO ARAUAK

21. Atala

Zerbitzuaren erabilera derrigortasunez arautzen duen berarizko araudi bat ezarri da, duten jarduera ekonomikoaren ondorioz zerbitzua aldarazi dezaketen erabiltzaileen kasurako:

Hauek dira jarduera horiek:

A.- Merkataritza, oro har.

B.- Ostalaritza, Elikadura eta Zerbitzuak.

C.- Janari-edariak eta Jolas Industriak.

D.- Biltegiak, Industria ekoizleak, Zerbitzuak.

E.- Arraindegiak.

Guzti horientzat ere, edukiontziak erabiltzeko araei dagokienez, gainerako erabiltzaileentzat jarritako berberak izango dira.

22. Atala

Ontziak eta enbalajeak

Kartoi edo zurezko enbalajeak, tolestu edo zatitu egin beharko dira eta poltsetan eta

edukiontzietan sartu, dituzten ezaugarriek edukiontziok behar bezala erabiltzeari kalterik ez sortzeko moduan, eta ezin izango dira ez pilatu ez horietatik kanpora utzi.

23. Atala

Paper- eta kartoi-edukiontziak jarri eta gero, II. Atalburuaren III. Sekzioan ezartzen diren arauen arabera utzi beharko dira material hori duten ontzi eta enbalajeak.

24. Atala

Ezin dira Deba Beheko Mankomunitateak homologaturik ez dituen kubo, bidoi eta bestelako elementuak erabili, ez eta solteko hondakinak utzi edo isuri ere.

D MOTA BARRUAN HARTUTAKO JARDUERETARAKO: BILTEGIAK, INDUSTRIA EKOIZLEAK ETA ZERBITZUAK

25. Atala

Hondakin solidoak ondo-ondo itxitako poltsetan eta likidorik isuri gabe utzi beharko dira hondakin solidoak, eta Mankomunitateak homologatutako edukiontzietan baino ezin izango dira sartu, horiek erostea erabiltzailearen kontura izango delarik.

26. Atala

Mankomunitateak zehaztutako bilketa-lekuan aurkeztuko d(ir)a ontzia(k), ondo-ondo itxita, adierazitako egunetan baino ez eta arratsaldeko 7etatik aurrera.

Bilketa egin eta hurrengo egunaren goizeko 8,30ak baino lehen kendu beharko du edo ditu ontzia(k) erabiltzaileak, eta haren erantzukizuna izango da garbi eta egoki kontserbatzea.

27. Atala

Enpresa handiak, udalerriak, salbuetsi egin ditzake hondakin parekagarrien bilketatik, hondakinen osakinek edo kopuruak bilketa ohi ez bezala oztopatzen dutenean eta enpresa bere etxeko hondakinak eta hondakin parekagarriak Transferentzia Plantara

edo horiek tratatzeko instalaziora eramateko moduan dagoenean. Leku horietan derrigorrezkoa izango da hondakinok jasotzea.

28. Atala

Ez dira joko etxeko zabortzat eta antzeko izaera duten zabortzat:

- A.- Dituzten bolumen, pisu eta gainerako ezaugarriengatik, zerbitzua kudeatzen duen organoak onartzen ez dituenak.
- B.- Neumatikoak, kubiarta, prozesu industrialetako hondakin plastikoak, bernizak, pinturak, hareak eta errautsak, koipezko produktuak, zumitzak, txirbilak, bidoiak, e.a.
- C.- RTP Legearen Eranskinean agertzen den elementu kutsatzaileraren bat duten hondakin-material guztiak, eta lege horrek markatzen duen gestioa izango dutenak.
- D.- Zabor erradiaktiboak.

29. Atala Arraindegiak

Berarizko araudi honek agintzen du:

Hiri-hondakin solido guztiak, ontziak eta enbalajeak barne, likidorik ez isurtzeko moduan ondo-ondo itxitako poltsetan sartu eta horretarako Mankomunitateak hornitutako

edukiontzian utzi beharko dira.

Establezimendutik hurbilen dagoen bilketa-lekuan utzi beharko da ontzi hori, ondo ondo itxita eta gainerako edukiontzien ondoan lerroturik, adierazitako egunetan baino ez eta gaueko 8etatik aurrera.

Erabiltzaileak berak kendu beharko du bide publikotik, bilketa egin eta hurrengo eguneko goizeko 10ak baino lehen, eta haren erantzukizuna izango da garbi eta egoki kontserbatzea.

II. ATALBURUA BILKETA BEREZIAK

I. SEKZIOA OBRA XEHEETATIK DATOZEN OBRA-HONDAKINEN BANDEJEN BIDEZKO BILKETA

30. Atala

Baimenik gabeko lekuetan, jabari publikoa duten lursailak behar ez bezala okupatu, zoladurak hondatu edo bide publikoak zikintzen dituzten isurketa kontrolgabekoak eta desegokiak ebitatzeko, dagokion Udalari kontsulta egin eta gero, Deba Beheko Mankomunitateak halako materialetarako isurketa-leku bereziak ezarriko ditu, udalerriko leku zehatz batzuetan erabiltzaileentzako bandejak jarritz, obra xeheetako obra-hondakinak uzteko, eta horrela, interesa duten pertsonak leku horretan zuzenean utzi ahal izango dituzte lurak eta obra-hondakinak.

31. Atala

Debekaturik dago lurrez eta obra-hondakinez nahastutako edozein hondakin organiko eta, oro har, beste batzuei, Ingurugiroari edo higiene publikoari kalterik sor diezaiekeen edozein gauza hustutzea.

32. Atala

Behar diren moduko baldintzetan garraiatuko dituzte ibilgailuek lurrak eta obra-hondakinak, daramatena ustekabeen eror ez dadin, eta behar diren neurriak hartuko dira bide publikoa zikin ez dadin.

33. Atala

Ordenantza honen ondorioetarako, ezin izango dira bandeja horiek erabili, hauetarako:

- 1.- Hondeaketetatik datozen lur, harri eta antzeko materialetarako.
- 2.- Eraikuntza-, botatze- eta errauspen-lanetatik eta, oro har, HANDI OBRETAKO gerakin guztietatik datozen hondakinetarako.

II. SEKZIOA

ALTZARI, ETXEKO TRESNA ETA GAUZA ZAHARREN BILKETAZ

34. Atala

Altzari, etxekeo tresna eta gauza zaharren bilketa bereziko zerbitzu bat ezarri du dohainik Deba Beheko Mankomunitateak.

35. Atala

Zerbitzuak altzari, etxekeo tresna eta gauza zaharren bilketa egingo du. Bilketa horretatik kanpo geratzen dira baliabide mekanikoak, hala nola, garabiak, poleak e.a. behar dituztenak edo berehala eramateko prest ez daudenenak.

III. SEKZIOA HAUTAZKO BILKETAZ

36. Atala

Hiri Hondakin Solidoen 42/1975 Legeak eta ekainaren 13ko 1163/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, 1975eko ekainaren 15eko 72/442/CEE Direktibarekin bat etorriz, hondakinak berriro erabiltzea, hondakinak berreskuratzea eta prebentzio-politika eraginkor baten beharra bultzatzeko helburuak ezartzen dituzte, guzti hori hondakinak hobeto aprobetxatzeko eta energi baliabideak eta lehengaiak hobeto erabiltzeko.

37. Atala

Aurreko Atalean ezarritakoaren ondorioetarako, Deba Beheko Mankomunitateak udalerrri guztietan edota duen eragin-eremuko udalerrien sektoreka, hautazko bilketak egin ahalko ditu eta aprobetxagarriak diren edo biltzea komenigarritzat jotzen zaien hondakinak aurkezteko (banaturik edo ontzi berezietan) eskatuko die erabiltzaileei.

38. Atala **Hautazko paper- eta kartoi-bilketa**

Aurreko ataletako helburuak lortzeko, Deba Beheko Mankomunitateak, papera eta kartoa biltzeko berarizko edukiontziak jarriko ditu Mankomunitatea osatzen duten udalerrri guztietan.

39. Atala

Deba Beheko Mankomunitatearen zerbitzuek finkatuko dute zein edukiontzi-mota jarri, zenbat erabili behar den inguru bakoitzean eta non kokatu, Udal bakoitzari kontsulta egin eta gero.

40. Atala Erabiltzeko arauak

- 1.- Edukiontzi hauetan utzi beharko dituzte zerbitzuaren erabiltzaileek papera eta kartoia.
- 2.- Kartoi-sortzaileek zatitu egin beharko dute kartoia edukiontzietan sartu baino lehen, behar den moduan ez erabiltzeagatik edukiontziaren funtzionamendua ase ez dadin.
- 3.- Ezin dira papera eta kartoia edukiontzien ondoan utzi; edukiontzietan sartu beharko dira beti.
- 4.- Ezin da papera eta kartoia ez den beste hondakinik utzi.

41. Atala Hautazko beira-bilketa

Mankomunitatea osatzen duten udalerrri guztietan daude halako edukiontziak. Sendotu egingo da zerbitzua eta, aldi berean, hobetu.

III. IDAZPURUA ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

42. Atala Arau-haustek eta zigorrak

Arau-hauste administratibo dira, Ordenantza honetan agertzen diren arauak betetzen ez dituzten akzioak eta omisioak batetik eta, Ordenantzan arautzen den gaiari dagokionean jarritako neurri zuzentzaileak ezartzeko edo halako portaera jarraitzeko aginduei ez obeditzea bestetik.

Hala behar den kasuetan, dagozkien erantzukizun zibil eta penalen exigentziaren kalterik gabe, zigorra izango dute honen ondoren tipifikatzen diren arau-haustek; 100.000 pezetatik gorako kopurua ez denean, Alkateak ezarriko du zigorra.

Zigorraren kopurua 100.000 pezetatik gorakoa denean, HHSei buruzko azaroaren 19ko 42/75 Legearen V. Atalburuko 13. Atalean agertzen diren agintaritza eskudunen kontura joango da hura ezartzea.

Horri buruz indarrean dagoen araudira egokituko da prozedura zigortzailea.

Zigorren graduaziorako, gorabehera hauek baloratuko dira batera:

- Arau-haustearen izaera.
- Ondasun edo pertsonentzako arrisku-gradua.
- Asmoaren gradua.
- Lehen ere egin izana.
- Sortutako kaltearen larritasuna.

- Kontutan hartzea komenigarri irizitako beste gorabehera batzuk.

Berrerorletzat joko da, aurreko urte batean arrazoi beragatik behin edo behin baino gehiagotan zigortu izan den partikularra.

Edozein modutan ere, berdin diolarik zein zigor jar daitekeen, ordaintzapen egokia izan beharko dute ondasun publikoei eragindako kalteek; dagozkien udal zerbitzuei egokituko zaie ebaluazio hori egitea.

Arin, larri eta oso larritzat jotzen dira arau-haustek, hemen zehazten denaren arabera:

ARAU-HAUSTE ARINAK

ARAU-HAUSTEA	GUTXIEN. ZIGORRA	GEHIEN. ZIGORRA
Hondakinak edukiontzitik kanpora uztea	1.000.-	10.000.-
Hondakinak txarto itxitako edo desegokiak diren poltsetan uztea	1.000.-	10.000.-
Hondakin likidoak dituzten poltsak uztea	1.000.-	10.000.-
Edukiontzietan zaborrak manipulatzeari	1.000.-	10.000.-
Hondakinak soltean isurtzea	1.000.-	10.000.-
Hautazko bilketarako diren edukiontzietan, horietan adierazten ez diren hondakinak sartzea	1.000.-	10.000.-
Edukiontzi berdeetan kartoi hutsa edo zatitugabea sartzea	1.000.-	10.000.-

¡Error! Marcador no definido.

ARAU-HAUSTE LARRIAK

ARAU-HAUSTEA	GUTXIEN. ZIGORRA	GEHIEN. ZIGORRA
Erabiltzaileak, justifikatutako arrazoirik gabe, berak sortutako etxeko hondakin solidoak Deba Beheko Mankomunitatearen esku jartzeari ezetza ematea	10.000.-	25.000.-
Edukiontzien funtzioa edo estetika kaltetzea	10.000.-	25.000.-
Hondakinen zamalanak eta handik eramateko lanak galeraztea	10.000.-	25.000.-
Hondakinak estolderi saretik hustutzea	10.000.-	25.000.-
Hondakinak etxebizitzan gestionatzea (erre)	10.000.-	25.000.-
Behar diren ikuspen eta egiaztapenak egiten galeraztea	10.000.-	25.000.-
Hondakin organikoak lur eta obra-hondakinekin nahastea	10.000.-	25.000.-
Behar bezala utzita dauden Hiri Hondakin Solidoak ohostea	10.000.-	25.000.-
Arau-hauste arinak berriro egitea		25.000.-

ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK

ARAU-HAUSTEA	GUTXIENEZKO ZIGORRA	GEHIENEZKO ZIGORRA	LEGERIAREN GEHI. SANT.
HHSak ezarritako lekuetatik kanpora uztea, kontrolgabeko isurketak eraginez	25.000.-	100.000.-	1.000.000.-
RTPak edukiontzietan uztea edo etxeko hondakinekin nahastea	25.000.-	100.000.-	1.000.000.-
Edukiontzietan hondakin erradiaktiboak uztea	25.000.-	100.000.-	1.000.000.-
Edukiontzietan asimilagarriak ez diren klinika-hondakinak uztea	25.000.-	100.000.-	1.000.000.-
Potentzialki arriskugarriak edo toxikoak diren hondakinei buruzko informazioa ukatzea	25.000.-	100.000.-	1.000.000.-
Edukiontzietan 8. Atalean aipatzen diren etxeko bilketatik kanpo gelditzen diren hondakinak uztea	25.000.-	100.000.-	1.000.000.-
Lursail publiko edo pribatuetan hondakinak erretzea	25.000.-	100.000.-	1.000.000.-
Bide publikoan gorpuak bertan behera uztea	50.000.-	100.000.-	1.000.000.-
Arau-hauste larriak berriro egitea			1.000.000.-

43. Atala

Udaltzaingoa izango da Ordenantza honen funtzionamendu zuzenaz arduratuko dena.

Ofizioz edo alde batek eskaturik emango zaio hasiera prozedura zigortzaileari,

¡Error! Marcador no definido.

dagokion salaketaren bidez.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen den momentutik, indargabetu egingo dira ezarrita egon eta Ordenantza honen aurka doazen lerrun bereko edo txikiagoko xedapen, araudi eta ordenantzak, baliorik eta ondoriorik gabe utziz.

AZKEN XEDAPENA

Behin-betiko ontzat eman ondoren eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratzen den egunetik hamabost egun igarotakoan sartuko da indarrean Ordenantza hau.

DILIGENTZIA: Hiriko hondakinen bilketa eta tratamenduaren ordentza, 1995ko apirilaren 27ko Udalbatzan behin-betikoz onartu zela jasota gera dadin, eta 1995ko ekainaren 16ko 114 zkizko GAO-n osoki publikatua. Idazkari-Kontuhartzailea.